

BERTSOAK ETA KANTUAK

Deskribapena: Aitor Abaroa, Ane Pedruzo eta Argixu Camus berriemaileak eskola batean, arbelaren aurrean aulkietan eserita ageri dira.

Kike (off ahotsa): Aizue, hirukote, eskolan ahozko tradizioa landu izan al duzue? Aitor!

Aitor: “Zeattik ni? Beti neu lehenengo!”

Kike (off ahotsa): Aitor! Aurrera!

Deskribapena: Aitor aulkitik altxatzen da erdira aurrerapausua emanaz.

Aitor: “Bueno, ba bai, nik ikastolan gatzetan, gogoratzen naz bertsolaritza emoten genula baino hori bai jolasorduetan zan, eta orduan, gitxi batzuk bakarrik apuntaten ginean. Eta bestelan, ba kantak eta ipuinak eta holakuak nik uste gehixao ba familitik edo lagunartian jaso deuzela.”

Kike (off ahotsa): Argixu, aintzina!

Deskribapena: Aitor bere eserlekura bueltatzen da eta Argixu altxatzen da erdira.

Argixu: “Neri orain! Beraz, ahozkotasuna! Egia eskolan guk ere piskat landu ginuela ipuinekin, bertso klaseak ere, kantu asko ikasten genituen eta gero kantu txapelketan erraiteko eta hori guzia, hori ongi, ongi landu genuen. Familian ere, xantza banuen, amani, aitani, attata-amamarekin familiako ipuinak, herriko, herriko beraz ipuin zaharrak ere ikasten genituen haiekin eta beti ere praktikatzen ditugu haiekin, oraindik ere bizi baitira eta hola. Gero Xüberoan erran behar da, hala ere badela tradizio bat ere kantuan ikasteko, asko kantatzen baitira eta beraz entzuten ditugu eta bertso batzuk hola ikasten. Beraz, bai, ez lehen bezainbeste baina pixka bat gelditzen da.”

Kike (off ahotsa): Eman pausu bat Ane!

Deskribapena: Argixu bere eserlekura bueltatzen da eta Ane altxatzen da erdira.

Ane: “Beno, ba, kantuaz aritu izan zarete biok eta ni ere kantuetaz gogoratu naiz honi buruz hitz egiterako orduan, izan ere, nik izan nuen irakasle bat, musika irakasle oso on bat eta berari zor diogu, bueno nik behintzat bai zor diot euskal kantugintzan trebatzen hasi izana, berarekin ikasi genituen lehenengo kantuak musikaren bitartez eta bueno, ba oso esperientzia polita izan zen. Bestela, bai liburuaren morroi izan ginela gehiago baina kantuan behintzat aurrez aurre ikasi genuen.”

Aitor: “Ondo, ondo, Ane, oso ondo, e!”

Kike (off ahotsa): Abaroa! Kalera!

Aitor: “Jodee! Beti bardin!”